

# Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2019ko abuztuaren 12tik 19rako astea

---

## ➤ **INGURU MAKROA:**

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

## ➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

## ➤ **GURE IKUSPEGIA**

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### EUROGUNEA: ZEW ALEMANA



#### Datuaren analisia

**Alemaniako inbertitzaileen konfiantza** 19,6 puntu jaitsi da abuztuan, eta indizea -44,1 puntuetan kokatu da, mailarik baxuena 2011ko abendutik. Osagaiei begira, oraingo egoerak -1,1 puntuetatik -13,5era egin du atzera, espero ziren -6,3 puntuen aldean. Aukeren osagaia ere -24,5 puntuetatik -44,1 puntuetaraino jaitsi da, aurreikusitako -28 puntuen aldean. Beraz, bere mailarik baxuenean dago 2010/11. urtetik.


Eurogunean, ZEW indizeak ere okerrera egin zuen, -20,3tik -43,6 puntuetaraino jaitsi baitzen uztailean.

#### Adierazlearen azalpena

Alemaniako Sentimendu Ekonomikoaren ZEW indizea Alemaniako ekonomiaren epe ertaineko egoeraren adierazle bat da. Une jakin batean dagoen "sentimendu ekonomiko" islatzeko balio du. Hilero argitaratzen du ZEW Institutuak. Europa osoko finantza-adituei egindako inkesta baten datuetan oinarritzen da. Alemaniako ekonomiaren hurrengo sei hileetako aurreikuspenei buruz galdetzen zaie adituei.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### EUROGUNEA: BPGd



### Datuaren analisisia


**Euroguneko BPGd**-aren datu aurreratua % 0,2koa izan zen 2019ko bigarren hiruhilekoan, analistek espero zutenaren bidetik. Urte arteko kopuruetera ekarrita, hazkundea % 1,1ekoa izan zen. Herrialdeka, Italiak zero hazkundea izan zuen; Frantzian hamarren bat jaitsi zen, % 0,3tik % 0,2ra, eta Espainian bi, urtarilla eta martxoa bitarteko % 0,7tik apirila eta ekaina bitarteko % 0,5era. Nolanahi ere, gertaerarik aipagarriena Alemaniako bilakaera izan zen, BPGd-ak % 0,1 egin baitzuen behera aurreko hiruhilekotik, herrialdearen bi oinarriri kalte egin dien gerra komertzialagatik apalduta: kanpo-sektorea eta industria-jarduera.

### Adierazlearen azalpena

Eurostatek argitaratzen du Barne produktu gordina (BPGd). Herrialde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Eurogunek ekoizten dituen azken zerbitzu edo ondasunen batuketa eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### AEB: KPI



### Datuaren analisia


KPIa % 1,8koa izan zen uztailean; beraz, adituek espero zutena baino hamarren bat gorago kokatu zen, eta ekaineko datua baino bi hamarren gorago. Elikagaiak eta energia kontuan hartzen ez dituen azpiko KPIak ere % 2,2raino egin zuen gora, espero zen % 2,1aren aldean.

### Adierazlearen azalpena

KPIa hilero prestatzen du Lan sailak. Amerikako etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### AEB: XEHKAKO SALMENTAK / MICHIGANEKO UNIBERTSITATEKO SENTIMENDUA



### Datuaren analisisia

**Xehekako salmentek** eman zuten ezusteko ederrak ekonomiaren inguruko beldurrak apaltzen lagundu zuen, justu 2-10 urterako inbertsioen kurba alderantzikatu zen egunean. Merkataritza sailak jakinarazi zuenez, xehekako salmentak % 0,7 igo ziren uztailean, analistek espero zuten % 0,3aren aldean.


Bestalde, **Michiganekeko Unibertsitateko abuztuko sentimendua** kalkuluen azpitik geratu da, 92,1 puntutan, aurreko hileko 98,4 puntuetatik. Horiek horrela, oraingo egoera eta aurreikuspenak aurreko datuen azpitik kokatu dira: oraingo egoera 110,7 puntuetatik 107,4 puntuetara jaitsi da, eta aurreikuspenak 90,5etik 82,3ra.

### Adierazlearen azalpena

Xehekako salmenten adierazleak xehekako salmenta-guneetako diru-sarreraren kopuru osoa neurtzen du, eta kontsumitzailearen gastuaren ahalmen orokorra erakusten du. Hilero enpresei egiten zaizkien galdetegien erantzunetatik lortzen dira datuak. Kontsumitzailearen sentimenduaren indizea (ICC) kontsumitzailearen konfiantza neurtzen duen adierazle ekonomikoa da, eta, beraz, kontsumitzaileen gastua aurreratzen duen adierazlea da. Michiganekeko Unibertsitateak argitaratzen du hilero, eta Amerikako 500 etxetan ekonomiaren egoera orokorraren eta gaur egungo zein etorkizuneko finantza-egoera pertsonalaren inguruan egindako inkestan jasotako datuak ditu oinarri. Kontsumitzailearen konfiantza altuak hedapen ekonomikoa sustatuko du, baina, baxua bada, hazkunde ekonomikoaren uzkurdua eragingo du.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### TXINA: INDUSTRIA-EKOIZPENAXEHEKAKO SALMENTAK



#### Datuaren analisisia

Txinan, industria-ekoizpena urte arteko % 4,8 hedatu zen uztailean, aurreko hileko datua baino portzentajezko puntu erdi gutxiago, eta analisten aurreikuspenen oso azpitik. Adierazle honen hazkunderik geldoena 2002ko otsailetik.

Bestalde, kontsumo-ondasunen xehekako salmentak urte arteko % 7,6 hazi ziren uztailean, aurreko hileko urte arteko % 9,8ko hazkunderaren eta esperotako % 8,6aren aldean. Bada, automobilen salmenten beherakada izan zen nagusiki jaitsiera horren erantzule.

#### Adierazlearen azalpena

Industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegiaren erantzunetatik lortzen dira datuak. Xehekako salmenten adierazleak xehekako salmenta-guneetako diru-sarreraren kopuru osoa neurtzen du, eta kontsumitzailearen gastuaren ahalmen orokorra eta xehekako saltegiaren arrakasta erakusten ditu.



## KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreik.
08/19	Japonia	Balantza komertziala	-¥194.5b
08/19	Japonia	Urte arteko esportazioak	-% 2.3
08/19	Japonia	Urte arteko inportazioak	-% 2.3
08/19	Eurogunea	Urte arteko KPIa	% 1.1
08/21	Espania	Balantza komertziala	--
08/21	Estatu Batuak	Bigarren eskuko etxebizitzaren salmenta	5.39m
08/21	Estatu Batuak	Hileko etxebizitzaren salmenta	% 2.3
08/21	Estatu Batuak	Fed-en ordainsariak	--
08/22	Frantzia	Frantziako Markit fabrikazioaren PMIa	49.5
08/22	Frantzia	Markit Frantzia Zerbitzuak PMI	52.5
08/22	Frantzia	Markit PMI Composite Frantzia	51.8
08/22	Alemania	Alemaniko Markit/BME fabrikazioaren PMIa	43.0
08/22	Alemania	Markit Alemania Zerbitzuak PMI	54.0
08/22	Alemania	Markit/BME Alemania Composite PMI	50.6
08/22	Eurogunea	Euroguneko Markit fabrikazioaren PMIa	46.2
08/22	Eurogunea	Markit Eurogunea Zerbitzuak PMI	53.0
08/22	Eurogunea	Markit PMI Composite Eurogunea	51.2
08/22	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	216k
08/22	Estatu Batuak	Markit AEB fabrikazioa PMI	50.5
08/22	Estatu Batuak	Markit AEB Zerbitzuak PMI	52.8
08/22	Estatu Batuak	Markit PMI Composite AEB	--
08/22	Eurogunea	Kontsumitzailearen konfiantza	-7.0
08/22	Estatu Batuak	Fed-en fab. jarduera Kansas Cityn	2
08/23	Japonia	Urte arteko KPIa	% 0.6
08/23	Estatu Batuak	Hileko etxebizitza berrien salmenta	-% 0.2

# ASTE HONETAN MERKATUETAN

## BURTSA:

Hegazkortasuna izan zen asteko protagonista nazioarteko merkatuetan, eta Eurostoxx50 indizearen hegazkortasuna neurtzen duen VStoxx indizea, besteak beste, urteko maximoetara igo zen. Mesfidantza izan zen jaun eta jabe burtsetan, atzeraldi ekonomiko batean sartzeko beldurra handituz baitoa gatazka komertzial eta geopolitikoaren gorakadaren erdian, hala nola Brexit, Argentina, Italia edo Gobernu falta Espainian. Asteon, Txinaren eta Estatu Batuen arteko tirabirek nazioarteko merkataritzan izan dezaketen eragin negatiboaz gain, errenta finkoak piztu du alarma, asteazkenean, kurbaren alderantzizkatze beldurgarria gertatu baitzen Estatu Batuetan eta Ingalaterran (2 urterako bonuak hamar urterakoak baino gehiago ordaindu behar zuen finantzatzeko). Anomalia hori merkatuko adierazlerik fidagarriena da atzeraldiak aurreikusteko, eta, horregatik, beldurra nagusitu zen merkatuetan, jaitsiera handiak eraginez. Nolanahi ere, merkatuak zertxobait baretzen lagundu zuten alderdi positiboak ere izan ziren tartean. Alde batetik, Trumpek gerra komertzialaren inguruan egin zituen adierazpenak, irailaren 1erako aurreikusita zeuden muga-zergetako batzuk abenduaren erdialdera arte ez zirela indarrean sartuko iragarri zuenean. Bestetik, EBZren inguruan sortutako itxaropena, Olli Rehn-ek (Finlandiako Banku Zentraleko zuzendaria eta Europako Banku Zentralaren Kontseiluko kidea) irailean egingo duten hurrengo bileran pizgarrien programa indartsu eta garrantzitsu bat martxan jartzeko iradokizuna egin zuenean. Azkenik, atzeraldiari aurre egiteko, Alemania aurrekontu orekatuaren araua alde batera uzteko prest egon litekeena jakin genuen. Ingurune makroan, Estatu Batuetan argitaratutako datuak, oro har, uste baino hobekak izan ziren, xehekako salmenten ezusteko atseginarekin. European, Alemaniako BPGd-a % 0,1 uzkurto zen bigarren hiruhilekoan, eta, beraz, atzeraldian sartzeko zorian egon zen Europako ekonomiaren eragile nagusia.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa Astean	Ald. % 2019
MSCI WORLD (Local)	1.619,99	-1,08	12,39
IBEX 35	8.670,40	-1,00	1,53
DJ EURO STOXX 50	3.329,08	-0,14	10,92
DJ STOXX 50	3.063,34	0,09	10,99
FTSE	7.117,15	-1,88	5,78
S&P 500	2.888,68	-1,03	15,23
Dow Jones	25.886,01	-1,53	10,97
NASDAQ	7.895,99	-0,79	19,00
NIKKEI 225	20.418,81	-1,29	2,02
MSCI GORAKORRAK (Lo)	54.645,21	-0,83	2,29
MEXBOL	39.339,55	-2,68	-5,53
BOVESPA	99.805,80	-4,03	13,56
SHANGHAI	2.958,19	1,77	13,28
Errusia Rts Mosku	1.239,81	-3,85	16,29

## ERRENTA FINKOA:

Atzeraldiaren inguruko beldurrak eraginda, inbertitzaileek bonuetara jo zuten babes bila. Hori dela eta, bonuon prezioak izugarri igo ziren, eta haien errentagarritasuna minimo historikoetan kokatu zen. Hain zuzen ere, hamar urterako Alemaniako zorra minimo historiko berrietan geratu zen, -% 0,69an, eta 10 urterako bonu espainiarra balio negatiboetara hurbildu zen. Atlantikoaren beste aldean, 30 urterako bonu amerikarra % 2tik behera jaitsi zen lehen aldiz.

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	Ald. 2019
ALEMANIA 2 URTE	-0,91	-0,05	-0,30
ESPAINIA 2 URTE	-0,56	-0,07	-0,31
AEB 2 URTE	1,48	-0,17	-1,01
ALEMANIA 10 URTE	-0,69	-0,11	-0,93
ESPAINIA 10 URTE	0,08	-0,18	-1,34
AEB 10 URTE	1,55	-0,19	-1,13
ALEMANIA 30 URTE	-0,22	-0,15	-1,09
ESPAINIA 30 URTE	0,93	-0,24	-1,68
AEB 30 URTE	2,03	-0,22	-0,98
<b>Kreditu-spreada (op)</b>			
MARKIT ITRX EUROPE 06/24*	53,18	-3,48	-35,19
MARKIT ITRX EUR XOVER 06/24	280,63	-0,87	-73,05

## DIBISAK / LEHENGAIK:

Merkatu hauetan ere sumatu zen hegazkortasuna, eta babes-aktibotzat jotzen direnak (Yena eta urrea) izan ziren onuradunak. Petrolioaren prezioa, bestalde, % 1,15 igo zen, 58,70 upela mailaraino.

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2019
Dolarra / Euroa	1,11	-0,98	-3,30
Yena / Euroa	117,96	-0,31	-6,15
Libera / Euroa	0,91	-1,89	1,63

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2019
Petrolio (Brent)	58,70	1,15	10,40
Urrea	1.513,38	1,41	18,01



Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.